

# BESTELAKO XEDAPENAK

## MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

### 1562

*EBAZPENA, 2025ko martxoaren 18koa, Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren zuzendaria-rena. Honen bidez, jendurrean jartzen da agindu honetan ezarritako laguntzen onuradunak: Agindua, 2024ko uztailaren 16koa, zeinaren bidez laguntza-programa ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraio arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako.*

Dirulaguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publikotasun-printzipioa betetzeko, 2024ko uztailaren 16ko Aginduak 12.3 artikuluan xedatzen duenez, dirulaguntza guztiak emandakoan onuradunen zerrenda eta emandako diru-kopuruak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.- Jendurrean jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa ezartzen duen Mugikortasun Jasangarriaren sailburuaren 2024ko uztailaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda, eta emandako diru-kopuruak, Azpiegitura eta Mugikortasun Jasangarriaren sailburuordeak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen arabera. Ebazpen honen eranskinean doaz onuradunen zerrenda eta emandako diru-kopuruak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 18a.

Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren zuzendaria,  
SARA BARREAL JIMENEZ.

## ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa ezartzen duen Mugikortasun Jasangarriaren sailburuaren 2024ko uztailaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunak eta emandako diru-kopuruak

Onuraduna	Dirulaguntza (eurotan)
Federacion Vasca del Taxi	13.000,00
Ateaia Euskadi-Olt Federación de Transitarios Organización para la Logística y el Transporte	9.525,00
Fevatrans	21.000,00
Hiru Garraiolarien Sindikal Konfederazioa -Hiru-	12.565,73
Sindicato Vasco de Transportistas-Egas	21.000,00
Asociación de Transportistas Autónomos Vascos	17.355,76